


Nafar karia

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko otsailaren 17a / VI. urtea / 166. zenbakia

Abiadura Handiko Trenak urteak beharko ditu Nafarroako tuneletatik sartu eta lautadak zeharkatzeko. Joan den abenduan Europako Elkarrekin erabaki zituen lehen-tasuneko proiektuetatik kanpo gelditu ondoren, aste honetan bertan jakin da atzerapena izango duela Madril eta Bartzelonako mugaren arteko ibilbideak. Horrek esan nahi du gaintzeko proiektu guztiak ere —tartean Euskal Herriko zatiak— gibelatu egingo dira.

Horrek, eta orain arte izan den informazio eskasak —gauza ulergaitza neurri honetako proiektu batean— ez du lagundu gizartearen barruan edozein herrilane sortzen dituen eztabaidak bideratzen, baina Nafarroako Gobernuak 1990ean enkargatutako proiektuan onartu zen Aralar tunelak, esaterako, zer esanik emango du. Ez oraingoz.

AHT: Oraingoz ez



AHT, Hendaiako geltokian.

ANDER GILLENEA

Nafar onaren kofradiak

Endrinak pardelean ongi bilduta eta janzkera bitxiez ederki apainduta, harat-honat ibili ohi dira gure geografian barrena. Bereziki, Nafarroako erdialde eta hegokaldeko herriak bisitatzen dituzte, tokian tokiko jauntxoekin sabela bapo betetzeko eta, honez gain, kultur ondasun izkutuak edo erdi galduak agertarazteko ere. Haien lana gogorra da eta, orokorrean, jendeak ez ditu behar bezala haintzat hartzen; lan itzela behar baita izan, duda gabe, txapela buruan eta kapa luzea soinean janztea eta aire horiekin herririk herri igandez igande ibili behar hori. Ordainetan ez dute ezer espero, nahiko dutelako ama lurraren

faborez aritzearekin. Gainerakook ez gara konszienteak gure ohitura eta produktuen jatorritasuna taigabe galtzen direla, homologazio-prozesu planetarioaren meneko bihurtu gara, nolabait esatearren. Ekoizleak ez ditu kezkatzen, ekoizkinak berri, bai ordea. Eta horri begira mugitzen dira hor-hemenka, nafar produktuen berri mundu osoari jakinarazten. Gure probintziako prebosteek jakin badakite, jakin, gure ohituren benetakotasunez eta gure produktuen bikaintasunez: Erriberako esparraguaren ehundura paregabea, piperren gurikeria, alkatxofaren bihotz emea, bertako-bertako arku-mearen okel gustagarria, txerri

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



nafarren ziztor gutziatsuak...eta horren testigantza ematen digure Kofradietako Jaun Prestuek, Diario de Navarra orrietan aldizka egiaztatzen ahal denez. Produktuak oro dira gorestekoak periplo foral honetan, beno, ia guztiak, nafar ardi latxaren esneaz egindako Idiazabal gazta ezik. Badakizu ezta!, gipuzkoarren kutsua.

Dena borobilduta dugu hemen: politikoki UPN da jaun ea jabe eremu foralean; ekonomikoki Estatuaren eta multinazionalen menpe jarri da ia zeharo alor produktiboa eta ekologikoa (Itoiz urtegia, kasu); gizartearen pentsakerari dagokionean, edo nahi izanez gero, heziketa kon-

tuetan, OPUSen esku geratu da, neurri handi batean bederen, barruko zein kanpoko eliteen formakuntza...Baina, azken hauek zozo hutsak direnez gero, ba, piper pixka bat eman behar zaio naparrari, ze demontre!, Nafarroa ere jeinu biziko lurralde dela antzemateko, nortasun propioa baduela begi bistan nabaritzeko. Horra, agian, azken urte hauetan zizak bezala ugalduz joan diren Kofradien zeregin, hainbeste ultra-jatorren zergaitia. Nafar baratzari errotik heldu diote aspaldi gure prebosteek eta baratzirik gozoenak beraientzat dira soilik. Bien bitartean, aitzurretan ari dira besteak. Tontoalenok!

GUERE AUKERAK

ANTZERKIA



Iruña Pequeño Teatro taldeak 'Bazter utzitako panpin baten istorioa' izeneko antzezlan taularatuko du asteburu honetan Iruñean, bi saio ezberdinetan. Lehena gaur ostirala, otsailak 17, izanen da, Hegoalde Ikastolan, arratsaldeko 3.30etan, euskaraz. Bigarrena, berriz, igandean eskainiko dute, Nafarroako Antzerki Eskolan, arratsaldeko 6.00etatik aurrera, erderazko bertsoan.

'La bella y la bestia' izeneko antzezlan taularatuko du gaur ostirala, otsailak 17, Scaramouche taldeak Zizur Nagusian. Bertako udalak antolatutako zikloaren barruan, gaueko 10.00etan hasiko da, Kultur Etxean. Sarrerak 400 pezetan salduko dituzte.

ZINEMA



'Fando y Lis' izenburuko pelikula botako dute heldu den asteartean, hilak 21, Iruñeko Olite zinemaren. Nafar Ateneoak Zinema Mexikarrari buruz antolatu duen zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

'Un corazón en invierno' izenburuko filmea eskainiko dute gaur ostirala, otsailak 17, Iruñeko Olite zinemaren. Jatorrizko hizkuntzan ematen dituzten pelikulen zikloaren barruan, arratsaldez izango dira, eta sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

BESTELAKOAK



'Urbasa, Entzia, Andia' izeneko diapositiba emanaldia eskainiko du heldu den ostegunean, otsailak 23, Mikel Nazabal etxarriarrak Iruñeko Zaldiko Maldiko Elkartean. Arratsaldeko 8.00etan hasiko da eta ondoren mintzaldia ere emango du Nazabalek.

Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso, Jon Sarasua, Bittor Elizagoien, Ernest Alkat eta Manuel Sein 'Xanpun' bertsolarien saioa izanen da igande honetan, otsailak 19, Sarako 'Omordia' aretoan. Euskal Kultur Erakundeak antolatuta.

EZLN eta Chiapasen aldeko konzentrazioa eta manifestaziorako deia egin dute Komite Internazionalistak eta Askapena taldeek, Mexikoko hegoaldean bizi den egoera salatzeko. Gaur ostirala, arratsaldeko zortziretan izango da.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Arco ezezaguna

● Espainiako arte garaikidearen azoka erraldoia den Arco zoragarri-jasangaitz horretara hurbildu naizen aldi bakanetan, beti saiatu naiz ezezagunen baten obra ikustea. Poza emango zidan zerbaiten bila ibili naiz beti, hur-

begiratzen dut egunero, ea aipamenean artean azaltzen diren. Asko nabarmentzen dira urtero, batzuk errebelazioak dira, besteak konfirmazioak, baina nik ez ditut inoiz topatzen nahi ditudanak.

Aurten ere gauza bera ger-

ez dute ezertxo ere saldu. Kritikaren saria Txillidari eman diote, fundazioak Tapias eta Sauraren lanak erosi ditu, eta amerikarrak txoratuta gelditu dira Victoria Civera, Susi Gomez eta Luis Moraza artista handiekin, besteren artean.



bileko izen batekin topatzeko desioan, aurpegi ezezaguna gogoan. Ez ditut hainbeste ezagutzen, baina lan honetan zortea izan dut batzuekin harremanak izateko, eta hara joaten direla jakiten dudanean iruditzen zait artetik bizitzeko pauso handi bat emana dutela. Bide onetik doazela, alegia. Baina inoiz ez ditut ikusi. Joaten ez naizenean ere egunkarietan

tatu zait. Gazteen urtea omen zen, beste urteetan izaniko krisi larriaren ondotik berpizkunderako garaia heldua zela-eta, arte garaikidea hartuta. Neure golkorako esan nuen: aurten baietz ikusi! Bada, zera, gehien saldu dutenen artean ez daude, eta batzuen ustetan, ezta pixka bat saldu dutenen artean ere.

Baten batek esan didanez,

Esaten zuen batek, joan baino lehen, Arco ez zela jendeak uste bezalakoa, hankak lurrean eduki behar direla. «Ezer salduko ez duzula jakinda ere inguratzen zara bertara». Hala ere, nik beti begiratzen dut, zerbait saldu ote duten. (Baina, jakina, pistolarekin isuritzako inprimazio sinkretikozko geruza ugari dituen zerbait nola arraio salduko duk!).

ASTEKO PERTSONAIK



Julian Retegi
Pilotaria



Gregorio Clavero
Barañaingo alkate ohia

Eratsungo pilotari handiak erakutsi du, berriro ere, oraindik kua-droko lehen postuan dagoela, berrogei urte izan arren. Txapelketa bikaina burutu du Inaxio Errandonearekin batera, oso partidu onak burutuz. Larunbatean, Labriten, izugarritzko tantoak egin zizkion Salaberria goizuetarrari, gehienak partiduko bigarren zatian, hasieran huts dexente egin baitzituen. Orain finala jokatu beharko dute Zezeaga eta Unanueren kontra, eta irabaztea ez da erraza izango, berak aitortu zuen bezala. Orain artekoa, ordea, hor dago. Dagoeneko pentsatua du nola jokatu beharko du azken partidu hori, emaitza edozein aldetakoa izan daitekela jakin arren: «Anoetako finalean Zezeagak ezkerrean duen zuloa bilatu beharko dugu; irabaztea, hala ere, zaila izango da».

Gregorio Clavero Barañaingo alkate ohiaren kontra hamar urteko inhabilitazio zigorra ezarri du epaileak prebarikazio delituagatik. Epaian frogatutzat jo da Claverok hainbat lan modu erabat irregularran adjudikatu zituela, Barañaingo udalerriaren kaltetan. Jasotako zigorraren eraginez ezingo du kargu publikorik izan datozen hamar urteotan. Horrez gain, Nafarroako Probintzi Entzutegiak bost milioiko kalteordainak eskatu dizkio Barañaingo alkate zenean bi lagun kanporatzeagatik. Epailearen arabera kanporaketak ez ziren bidezkoak izan. Claverok azaldu du errekurtsioa jarriko duela epaiaren kontra, eta ondorioz, behin-betiko epaia ez da urtebete barru arte aterako. Hala ere, astea amaitu baino lehen uko egingo dio zinegotzi karguari.

AHAZTU GABE!

JAIK



'Kaldereroen festa' ospatuko da gaur ostirala Iruñean, bertako Kauteroen Elkarteak antolatutarik. Bostehun bat zingaro ibiliko dira aurten Iruñek kaleetan barna inauteriak alaitu nahian. Desfilea arratsaldeko zazpietan hasiko da Recoletas plazan. Tropelako buruan Tarragonako Gralles de la Torre taldea joango da, atzetik, zingaro guztiak izanen dituelarik. Zingaroekin batera beste aintzineko pertsonai berezi batzuk aterako dira, azken urte hauetan berreskuratu direnak. 'Sierpe' edo 'Aitatxarka' izeneko herensugea XIV. mendetik XVIII. mendera arte Iruñean ateratzen zuten Korpus egunean eta zerbait berezia gertatzen zen bakoitzean, gero sua ematen ziotelarik. Gaurko jaialdian ere aterako dira, ahotik sua dariola, 'Pispiri' izeneko musika pieza batekin lagunduta. Kalean ibiliko den beste pertsonaia hartza izanen da. Zingaroek animalia hau herriz-herriz eramaten omen zuten zirko ikuskitzen artean. Elementu zentrala, nola ez, kautera izanen da, eta sorbaldan emanen dute. Aurtengoa bi metrotako diametroa du.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Zizur Txikia

San Fermin Ikastolak 25 urte

K. DIEZ DE ULTZURRUN / IRUNEA

Zizur Txikiko dermioaren barrerian kokatua, elortz ugaldaren erripaburuan, behiala ardantzaz jositako lur sail zabalak zirenekoan, eraikin gorrikara agertzen da, pinu berriez erdi inguratuta. Filoxeraren gaitzak mahats aleak eraman zituen, eta, nekazariak garia jarri zuten orduan. Ondotik, 'Vervo Divinoko' fraideek lurra goldatu zuten ez garia erateko baizik eta komentu bat eraikitzeke, eta, duela 25 urte, bertze gizon emakume batzuk iritsi ziren gizaseme erlijioso haiei zenbait gela errentan hartzeko.

1.970garren urtea izan zen hura, hots, San Fermin Ikastola sortu zeneko urte seinagarria. Ikastetxe horrek 1.500 ikasle baino gehiago gizarteratu ditu orain artean, eta, gaur egun, ia 1.400 neskatu-mutiko ari dira, 3 urtetik 18 urte bitartera. Beraz, unibertsitate arteko irakaskuntza hartzen dute lanbide heziketa izan ezik, eta, presto daude erreformak ekarriko duen guztia, den dena, ezartzeko. 25garren urtemuga hau behar den bezala festatzerakoan hiru helburu zehaztu dituzte, Jose Miguel Ganboa jaunak, hots, Ikastolako presidentek azaldu bezala: «Omendu egin nahi ditugu hasieratik lanean ibili diren guztiak: gurasoak, irakasleak, ikasleak. Gero erakutsi nahi dugu zer den ikastola, gizarteari, Iruñerriko gizarteari agertu nahi diogu gure lana, oraindik zenbait irudi okerra duelako, eta, azkenik, gure proiektua azpimarratu nahi du-



Ikastolako haur bat. LACALLE

gu, indarrak berri eta bildu aurrera begira lanean, finko eta sendo, segitzeko».

Alde horretatik, bi ekitaldi mota prestatu dituzte programazio oparo horretan: alde batetik, kanpora begira eginen diren diren saioak, eta, bertzaldetik, ikastola barrerian prestatuko dituztenak. Lehendabiziko horiei bagagozikie, danetariok izanen dira, ahalik eta jende zabalena erakartzeko modukoak: kantaldiak, rock kontzertuak, antzerki saioak, hitzaldiak, mahai inguruak, zine emanaldiak, argazki erakusketa eta bertze. Lehendabiziko ekitaldia bihar izanen da, Iruñeko Gaiarre antzokian Beni-

to Lertxundi arituko baita, arratsaldeko 8etan hasita. Kantaldi horretan San Fermin abesbatzak ere parte hartuko du, Lorentzo Ondarra musikagilearen 'Jokuak' izeneko lana emateko. Azken partean, Orioko abeslariak eta abesbatzak elkarrekin kantatuko dute. Ekitaldi guztien artean garrantzikoena apirilaren 2koa izanen da, dudarik gabe. Izan ere, ikastolaren egun handia ospatu nahi dute eta egun osoan saioak montioka burutuko dira. Esate baterako, Euskal Telebistak zuzenean emitituko du eta Iñaki Perurena munduko errekor berria ezartzen saiatuko da. Leizarrarekin batera Malerrekako aizkolari handi bat ariko da, aizkora eskuan duela, altueran, enborra mozteko.

Oroitarri bat ere ezarriko dute ikastolan, bertako irakasle bat, Mikel San Roman, buru belarri prestatzen ari dena. Egun horretarako ikastolari lotutako gizon emakume guztiak bildu nahi litzukete: ikasleak, direnak eta izandakoak, gurasoak, langileak, hasierako bultzatzaileak, denak herri bazkarian biltzeko. Aipatu beharra dago, bertalde, 25 urte hauetako historia luzea liburu batek isladatuko duela. Lanbide horretan bi lagun ari dira: Jesus Atxa ikastolako zuzendari ohia eta Aingeru Epaltza nafar idazle ezaguna. Ezin konta ahala ekitaldi beraz, bihurtik aitzinera ekainera bitarte eginen direnak. Horien berri emanen dugu. Bizkitartean, lerro hauez baliatu nahi dugu San Fermin Ikastolari goraintzi emateko: zorionak eta aunitz urtez.

Altsasu

Sakanako ikastetxe publikoak aldaketan aurka

ALTSASU

Sakanako ikastetxe publikoek LOGSE legea aplikatzerakoan alderdian egin diren hainbat aldaketa salatu dute, eta horren bidez irakaskuntza pribatuaren alde ez ote den egiten ari galdetu. Uharte, Lakuntza, Etxarri-Aranatz, Altsasu eta Olaztiko ikastetxe publikoek sinatutako idazkian, auzo elkarte, udal, alderdi politiko eta hainbat talderen laguntza eskatu dute.

Hainbat zentrotan Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Sailak eragindako aldaketan ondorioz, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak OHOk 7. mailara igaroko lirateke, eta OHOk 8. mailakoak DBHko 3. mailara. Hori «pedagogiaren aldetik astakeria» da sinatzaileen ustez. «Horrek moldatzeko arazo ikaragarriak ekarriko litzokie bai ikasleei bai irakasleei». Halaber, neurri honek Hezkuntzako ikasleria gaur egungo ikastetxeetan barreiatuko lukeela diote Sakanako ikastetxe publikoek, baita baliabide publikoak alferrik xahutzea izango litzatekeela ere. Ikastetxe publikoetan egiten ari den lanarekiko «mesprezua» izango litzatekeela ere esaten dute idazkian.

Donapaleu

'Amikuze aitzina bizi' taldearen pesta

L.F. / BAIONA

Urtero bezala, 1991n sortu zenetik, Amikuzeko geroaz axolatzeko sortu den taldeak bere urteko besta aste buru honetan ospatuko du. Bi hitzordu garrantzitsu eskainiko ditu taldeak aurretan, arrats honetan eta igandean ere ekitaldiak antolatuko baituzte elkarteko partaideek. Horien artean, eztabaida iraganen da Donapaleuko Herriko Etxean, 20.30etan, tokiko garapena eta bertako aktoreen betebeharrak aipatzeko. Mintzaldia kudeatuko du Eric Andrieux, tokiko garapenaz aditu den Mouthoumeteko Distriktaren lehendakari eta Aude departamenduko Kontseilu Nagusiko lehendakariordeak. Aurkezutako eztabaida lotua da gaur egun eramatean den gogotari, Amikuze-Oztibarre-Iholdin PCD Garapenarako Proiektu Kolektiboa eratzeke eta definitzeko. Igandean, elkarteko ki-deak bilduko dira bazkari herriko handi baten inguruan, eztabaiden ondotik besta egiteko tenoreia baita.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Mina

Etxeberria, Irigibel eta Martin: zazpia, bederatzia eta hamarika. Nire garaian horietan ziren Osasunako aurrelariak, eta nire uste apalean —Bosmediano, Robinson, Urban eta gainetako baimenarekin—, horietan osatu zuten historia osoko eraso gorritxorik indartsuena. Kartzelako patioan estreinatuz futboleko aritu nintzenez, Juan Kruz Lakasta Gaztelu plazako taldeko gloria zahar horien parerako zela erakusten saiatu nintzen.

Jokatzen hasi ginelarik, funtzionari batek —'boki' batek, Mario Condek esanen lukeen moduan— badaezpada ere gu gertutik zaintzea erabaki zuen. Batek daki zer egin dezaketen gu bezalako intsumitu bortitz batzuek futboleko baloia bezain arma arriskutsu batekin. Hegallean zutik geratu zen, guri begira. Ni, baina, ez nintzen horretaz



konturatu, eta Boris —fisikoki zein jokatzeko moduan Zioberran antz izugarria daukan intsumitua— nire areara hurbildu zenez, erasoan Martin bezain trebea banintzen defentsa lanean Mina edota Pepin bezain sendoa nintzela erakusteko xedeak bultzaturik, baloiari sekulako ostikoa eman nion.

Baloia, ziztu bizian, funtzionariari metro erdi eskasera pasatu zitzaion, eta berta-bertan pareta jo. Bokiak begietara egin zidan so, eta bere aurpegiko keinua ikusirik, une batez kartzelan eman behar dudan urtebetea zigor-ziega batean egin beharko nuela uste izan nuen. Azkenean, isilune amaigabe baten ondotik, «Tenga más cuidado» besterik ez zidan esan, patiokideak barrez lehertzen ziren bitartean. Horixe izan zen Lakastaren partidu horretako jokaldirik hoberena eta kasik bakarra; izan ere, bost minuturen buruan Lakasta leher eginda zegoen, lur jota. Neka-neka eginda, arnasetuka ozta-ozta lortu nuen «ezin dut gehiago, dutxatza noa» esatea. Zorionez, datozen hamabi hilabeteotan ez dut garagardorik edanen... ezta ere ardorik, kalimotxorik, ronik, konbinaturik... agh!

Donibane-Garazi

Irulegiko Irratiaren kanpaina

L.F. / BAIONA

Urtero bezala, aurreko urtearen hilabetezariak deklaratu behar direnean zergak pagatzeko Frantziako estatuari, Nafarroa Beherean dagoen Irulegiko Irratiak diru-biltze kanpaina abiatzen du. Hots, aurrekontuaren zati handiena behatzaileen saketetik dator eta ez da harritu behar, hilabete honetan, gazte batzuk ikusten badituzu ibiltzen etxe etxe eskan. Garazin kokatu den euskal irrati biziartzeko laguntzaile errabiatuak izanen dituzu eta Nafarroa Behereko herri guztiak zeharkatuko dituzte ahal den dirua biltzeko.

Kanpaina ofiazilki abiatuko da datorren larunbatean, otsailak 18, Garaziko herriak ihauteria

ospatuko duenean. Festaren doinuak eta giroa entzuten dira irratiaren, zuzenean emitituko baitu Garaziko karriketatik. Hala ere, besta arats horretatik abiatuko da, 4. Gau Izar emankizuna publikoan grabatuko baita. Saio berezi hau grabatuko dute animatzaileek Sustrai dantza taldearekin Itsasuko Goxoki batzokian. Besteak beste, Niko Etxartek eta Koxegi txaranga famatuak parte hartuko dute, Sustrai taldeko kideek gonbidaturik.

Ondoko larunbatean, elkarriketa irratiari eman ondoren, Sustrai lanean ariko da irratiarentzat, dantzaldia emanen baitu otsailaren 25ean gaueko 10.30etan Arrutan. 'Oiharzuna' irratiaren elkarrekin antolatutako

gauan lehen zatian Sorotan Beletaldea entzuteko parada izanen da. Ondoko igandearekin, martxoaren 5ean, diru-biltze kanpaina bukatuko da usaiako bazkariarekin.

Irratiak ere saio bereziak zabalduko ditu kanpainakari, otsailaren 20tik martxoaren 4a arte. Adibidez, Antton eta Mariaren istorioak entzuten dira eguerdi eta beraien aztarnak kontrabandoaren sendetan segi ditzazkete. Behin baizik ez dituzte zabaldu istorio horiek, duela bizipahiru urte eta mentura ona izanen da irriz aritzeko. Aratseko 7.15etan, berri saioaren ondotik, 'Mendekoste gereziak' ostakotuko du animatzaileak, Jean Etxepareren liburu ederra oroituz eta ezagutaraziz irakurleei.

Betarik ez amodiorako

Galdera: Doktore jaun txit gailena. Astero irakurtzen ohi dut zure kontsultategia, bistatik oso katoliko ez nabilen arren, lauetan hogeit hamar egunen baitut heldu astean. Neri kantatzen ahal zait kanta hura: 'Hamarrak jo dute/hamaikak jo-tzeko/Urrutuko amandun zaharra/beti ezkontzeko'. Nik pasatu baitut bizi guzia beti lan eta lan. Ez bainuen betarik eduki amodio aferetan ibiltzeko. Ze miseria eta ze desgrazia ikusia naizen bizimodua aitzina atera ahal izateko. Pena hori dut gogoan, mundu honetatik joango naizela gauza horiek ezagutu gabe. Gauza ederrak galdu ditudala irudi zait. Hola da, ezta?

Erantzuna: Amodioarekin gertatzen da eski-estazioekin gertatzen dena, gutti goitti-beheitti. Elurrik ezean, miloika zenbatzen dira kalteak. Elurrak gainezka eginez gero, lehenagoko kalteak etekinak dira. Asko galdu baduzu, horrek esan nahi du asko irabaz zenezakeela. Hala ere, errepikatzen dut, eski-estazioak bezalakoa da Amodioa. Eta bada lasai askoan, oso gustora, kostaldean bizi den jendea, konformidadean, eski-taula batzuen gainean sekula sekulorum ipurdia jarri gabe. Amodioa altura handiko aferada, elurra lez. Eta jakina, bada jenderik elurretan ibilitakoan zuri hori hatsa baino premiazkoagoa gertatzen zaiona. Eta jaketa kanta bat aipatu duzun, nik beste batez akabatu nahi dut. Etxeberritar Pantzeskarena da. 'Bost lore', 'Lilitxo! Nora zera/nigandik igesi?! Garoa hemen dago./Ta, zu ez ageri!/Nor izan da gaiztoa?! Nork zaitu ebatsi?! Minez nagokizuke/gaur geroztik beti'. Lauetan hogeit hamar urte izanda ere, poematxoak xamarra irudituko zaizu. Baliteke. Halaz ere, ez pentsa gaur egun harrokeria anfetaminikoak jota idazten diren kanta askoz ere justutasun handiagokoak direnik, Amodio aferetan.

Galdera: Badut sexu-denda familiar bat, hau da, nire aita-txiren aitak behiala martxan jarri zuena, eta belaualdiz belaualdiz nireganaino iritsi dena. Afera da nire emazte-gaia, Ramon Irigoyenen irakurle amorratua izanagatik ere, familia tradizional batekoa dela, eta nik haren aitamen begi-

BEHIN-BEHINEKO EUZKO SENDIMENDU KONTSULTA



Amodioarekin
gertatzen da
eski-estazioekin
gertatzen dena,
gutti goitti-beheitti.

runea irabazi ahal izateko, nire sexu-denda familiarra saltzeko erregutzen didala. Haren aitak Ordenagailuaren Bidezko Diseinu Galaktikoa delako enpresa bat dauka, eta ni hor atezain ari ninteke. Nik gustoraren gustoraz hertsiko nuke denda, baina, esan dizudanez, familiarra izanik, ez derizot ongi. Zer errekomendatzen didazu?

Erantzuna: Hori ez da nik ezagutzen dudana lursaila. Ez dakit. Nik konfitero ohi asko ezagutu ditut orkestra zuzendari, eta motzaileak izanak orain Burtsako korrikalari. Hasteko esango nizuke prezio onean saltzeko, horrelaxe kontentatzen baduzu zure emaztegaia.

Gero ez lotsatu halako negozioa izateagatik. Ez dago putaxka eta kabroi handiagorik bere ondra sal-erosketan



Pamielak argitaratutako 'Caínes navarros' liburuaren ilustrazioa.

Ez dago putaxka
eta kabroi
handiagorik bere
ondra
sal-erosketan
ibiltzen duena
baino.

ibiltzen duena baino. Esan nahi dut, askoz ere inmoralagoa da igandean Apezpikuaren idazkia plazaratu eta astelehenean futbol kronikaren ondoan top-less taberna bat iragartzen duen egunkaria pornografia aldizkari bat baino. Bigarren hau erosten duenak badaki zer aurkituko duen. Lehendabizikoa erosten duena zeraren bila joan eta besterik pila dezake.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Vidador

Laborarien abissua

Mongongo Azantza Baigorrikoaren al baitari gutuna



Baigorri aldeko Mongongo Azantzak —Mongongo Dassa-ña naski prefosta!—, Tximista goitizenez haboro ezaguniko baxenafartarrak, 1692 lorioseko urtean inprimatzerat eramaten du Baionako Laserre moldiztegiaren benetan lan inportantea eta txit fundamentalak. Esangabe doaie, euskal literaturaren historia santu oroz josirik abia izan dela mendeen bitarte, baina hara non eta ixtumuxtukan noizean behin ere gure Tximistak egin moduko ekaizti tarreak atertzen direla gure oste sakratukoian, eta herri xume bezain botatarendako eskuliburu behar beharrezkoak sortzen direla, guti izanda ere, aprobazio-ne eta guziz behar orduan.

Irurtzun-Elizondo ardatz komertzial garrantzitsuan mugituz diren entrepresa frangoen artean, bada al baitaritza zerbitzuak ofertatzen dituen esaterako. Ez da gauza makala azienden eritasunak sendatzea, batik bat egunero ogibidea denean. Zenbat eta zenbat laborarik, bruzelosia edo bestelako gaitzaren bat dela eta, behien hiltzerat beharturik kausitu dituzte hekien buruak, eta kostata irabazitako sos apurrak nola galtzen diren ikus beharrean egondu bai ondikotz.

Egungo aferak honezkero kezkatzeko modukoak baldin badira, nolakoak izanen ziren Mongongo Azantzaren garaian. Hartarainokoak ziratekeen ezen Monsieur Gaztanbide medikuak bere onespina ematen baitio gure Tximistari laborariak balia daitecentzat hango erremedio miragarriak. Bada gure autore umilak **Laborarien abissua** izeneko hogeitamar liburuxka ttipi agertzen baititu esan urtean *ceinetan eracutxico beiteret idien, eta behien, eta ardiaren eritarçun principalen eçagutça, eta heyer comeni çaiçcoten erremedio miragarriak*.

Tirada urriko lantto honetan gure Azantzak zenbait erremedio baliagarriak plazaratzen ditu apaltasun haundiz: *idiac eta berce aciendac gucièn beçain ungui hanitx eritarçunerat suyetatcen direla eta nola lucieguy bailitac que gucièn causaren erraitea, contentatuc naiz choilqui principalen eracustiaz*. Ematen di-

tuen formulak mota guzietakoal ditugu, eta gaitz aunitz sendatze koak: unadura udaberrian, sabel mina, sarna, usada edo sabeltasuna, idiaren erortzeko mina, pi-xarik ezin egina, idiak bere natur-gogortua duenean, errainetako mina, barrabilak hantuak, begi-nigartiak, sugearen auskiek, kontrako erremedioak, etaba luzexka bat.

Egungo aplikazio praktikoa bilatzeko orenean aski erabilgarria suerta dateke nonbait suger aitziko gure al baitari partikularrak ematen duen erremedioa, an-gehiago gogoan hartzen baditug hainbat lekuetatik atera dakizki guken gizasugegorri nardagarriak: *asqui duçie pherecatçia, aussiquia den lekhuan olio es corpiõnaz edo esperen ha eçaçue lau untça salboin çaha guero hurt laurden bat minagretan hartaz maiz garbi eçaçue aussiquiac diren lekhuan, gaug bera eguin deçaqueçue mirra an noarequin hiraquituric*. Bestal-detik ere, hazkazalak jaten dutenendako bada beste erremedio ximple baina guztiz praktikoa *har eçaçue turmentina ezco hori eta estia, bacoitçetic untça ban eta hec elgarrequin hurtu dire nian asqui duçie pherecatçia*.


Hagitz interesgarria eta egungo hagitzen da honako pasari hau ere: *erranen darotçut ez del mundu huntan aireric edo haxi hartu gabe bicitcen, eta nola air honac eta garbiac ossasuna con serbatzen baidu, hala gaiztoa ere cassarasten tu eritarçun et heriotce dorpheac*. Hau irakurrik, nafar kirol talde bat badatokit burura. Profeta zaharren ar-tzera ez ote da gure Mongong Dassaña Chimista gertatu? Z darren egosten dena aire txarra ez ote dira? Horrelaxe bada, z letuengan legoke gakoak, eta igar detan hainbat nafar etxeetan ser bitzatzen diren ilar beltzak azke-neko errudunak lirateke naski.

Klasiko inportantea gaurko hazienda osasuntsuak nola mantendu irakasten diguna, eta arr-zoi bakar horrengatik, gure hazienda kontseilariak irakurri be-harko lukeena. Bihoa hemendi beraz gure gomendiorik prezio-tuena Juan Ramon Jimenez Perez kontseilari jaunari.




■ Irufeko Hiria Xake torneo itxiko zazpigarren ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 3an jokatu. Vadim Zvjaginsev, 2.585 ELOkoa (Errusia)-Vaselin Topalov, 2.645 ELOkoa (Bulgaria). 1.d4,Zf6; 2.c4,c5; 3.d5,b5. Peoien egitura haustea da asmoa. 4.Zf3,g6; 5.Dc2,c4; 6.e4,Ag7; 7.Ac4,d6; 8.0-0,0-0; 9.h3,bZ-d7; 10.Gd1,Zb6; 11.Ae2,e6; 12.e6,Ae6; 13.Zc3,De7; 14.Ag5,h6; 15.Ah4,aG-d8; 16.Ge1,g5; 17.Ag3,Zh5; 18.Ah2,f5; 19.f5,Af5; 20.Dd1,d5. 'Ac4 xa' galarazteko. 21.g4,Ae4; 22.h5,Df7; 23.Ze4,e4; 24.Dc2,f3; 25.Af1,Dh5; 26.Ge7,Gf7; 27.aG-e1,Ad4. Ikus Koadroa. Beltzen

eraso saioa zoritxarrekoa da. Txuriek badaukate partida irabazteko konbinazio sarea, ederki tajutuko dutena. 28.Ac7,dG-f8; 29.Ab6,b6; 30.Ac4,Dh4; 31.Af7 xa,Eh8; 32.1G-e3. 'Ae6' egin izan balute, galera: Dg3 xa,Dg2 xa mate. 32...Dh3; 33.Dh7 xa, Eh7; 34.Ae6 xa,Eg6; 35.Ah3,Ae3; 36.Ge3. Oso erraza ez badago ere, txuriek erabakita antzera utzi dute norgehiagoka. 36...h5; 37.Ad7,g4; 38.Ge6 xa,Eg5; 39.Gb6,Gf4; 40.Gc6,Gc4; 41.b4,Gb4; 42.Gc5 xa, Eh4; 43.Ae8,g3; 44.Gh5 xa,Eg4; 45.Gb5,Gd4; 46.Ah5 xa,Ef4; 47.g3 xa,Eg3; 48.Gg5 xa. Peoiak ez du defentsarik. Beltzek etsi zuten, konbinazio jokoan gaintututa.





JOXE LACALLE



Liburuan azaltzen den ilustrazio bat, eta ezkerrean Esperanza Soroa.

Hegoaldearen bila' izeneko proiektua 1993. urte hasieran hasi zen mamitzen Medicus Mundi gobernuz kanpoko erakundeak. Proiektu honek joan den urtearen bukaeran eman zituen lehen urratsak. Azaroaren 22tik abenduaren 18ra, Iruñea 'Hegoaldearen bila' izeneko erakusketa inter-aktiboaren lekuko izan zen. Orain, izen bereko liburua kalean da, erdaraz eta euskaraz.

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Erakusketa eta liburuaren bidez, hirugarren munduaz dugun ideia aldatu eta errealitatera hurbiltzea du helburu Medicus Mundik. Horretarako, egunero bizitzaren atal ezberdinak hirugarren munduan nola bizi dituzten erakutsi nahi izan du, komunikabide orotan ateratzen dena gainditu eta zuzenagoa den ikuspegia azaldu, azken finean.

'Hegoaldearen bila' erakusketa, erran bezala, Iruñean inauguratu zuten joan den abenduan

Hegoaldeari buruz gogorra baina positiboagoa eta sortzaileagoa den irudia azaldu nahi dugu».

eta arrakasta galanta lortu zuten, 20.000 bisitari inguru. Egun hauetan, berriz, Donostian da aipatu erakusketa eta ondoren, Gasteiz eta Bilbon egongo da ikusgai. Euskal Herritik kanpo ere ikusiko da erakusketa. Apirilean, Mallorcako Palmara ailegatuko da eta urrian Granadara, besteak beste.

Erakusketa eta liburua, noski, estuki lotuta daude. Izan ere, erakusketa antolatuta ahal izateko Medicus Mundik egin zuten ikerketaren emaitza izan da liburua. Esperanza Soroa Medicus Mundiko kidea eta argitalpen zuzendariak EGUNKARIARI azaldu dienez. Datu eta informazio ugari bildu zuten gobernuz kanpoko erakunde honek eta guztia jakinarazteko asmoz argitaratu du

'Hegoaldearen bila' liburua.

Liburuak bost gai nagusi jorratzen ditu: osasun etxea, eskola, plaza, etxea eta albistea. Lehenengo lauren bidez, bizitzako egoerak agertuz, Hegoaldeko herrien errealitatea ulertzen lagunduko duten datuak eman nahi ditu argitalpenak. Albistea deritzon bostgarren atalak, berriz, «gogoetarako txokoa» izan nahi du Soroaren arabera. Komunikabideek Hegoaldeari buruz agertzen duten irudi mugatua atzean utzi nahi du Medicus Mundik: «Telebistan ikusten dugunaren arabera, Hegoaldea galtzear da-

goela dirudi. Horren aurrean, gogorra baina era berean positiboagoa eta sortzaileagoa den irudia azaldu nahi dugu, errealitate orok baitu alde onik».

'Hegoaldearen bila' liburuak janaria, arropak, musika, ikasketak, eritasuna edo lana bezalako gaiak aztertzen ditu, pertsona guztiek bizikizun zehatzak baitituzte eguneroko bizitzaren alderdi horiei buruz. «Horrek, bakoitzaren esperientziak beste kulturetako jendearekin alderatzeko aukera ematen digu. Esperientzia hauek oinarritzat hartuz, jendeak gai orokorreki bu-

ruzko gogoeta sakona egin dezan nahi dugu» azaldu du Esperanza Soroak.

Pili Yoldi kazetariak idatzi ditu 'Hegoaldearen bila' liburuko testuak. Hegoaldeko errealitatea ezaguna du Pili Ioldik eta bere eta liburuan parte hartu duten hainbaten esperientziak ageri dira argitalpena osatzen duten orri guztietan zehar. «Pili Ioldi kazetari aparta da eta Hegoaldeko gaiekiko oso sentibera. Hegoaldeko bizitza ezagutuko ez balu ezinezkoa izango litzateke halako liburua idaztea», nabarmendu du Soroak.

LIBURU ERRAZ ETA ATSEGINA

'Hegoaldearen bila' erakusketa gazteek bisitatu zuten batez ere eta liburua egiterakoan ere irakurleak batez ere gazteak izango direla kontuan hartu dute Medicus Mundi elkarteak kideek. Finean, guztientzat egokia den liburua egin dute. Marrazkiak, argazkiak eta adibide zehatzak dira argitalpen honen funtsezko osagarri, «liburu erraz eta atsegina egitea baitzen gure helburua», azaldu du Soroak. Argazkiei dagokienez, Fernando Mujika eta Miguel Bergasa ar-

Eguneroko bizitzako egoerak agertuz, jendeak gai orokorreki buruzko gogoeta egin dezan da gure asmoa».

Betty eta Maalin

E.E. / IRUÑEA

«Hirugarren Munduko errealitatea bere protagonisten eguneroko bizitzaren bitartez: Hegoaldea bizi, sortu eta bere etorkizunaren alde ari da». 'Hegoaldearen bila' liburuak hitz horiekin ematen dio ongi etorria irakurleari.

Hortik aurrera, Hegoaldeko osasun etxe, plaza, eskola, eta etxetan sartzeko gonbitea egiten dio. Ibilbideari ekiteko, gainera, adibide eta egoera zehatz ugari eskaintzen dizkio, Hegoaldeko hainbat herritar bere izendeiturekin aurkeztuz

La Carolingia Guatemala hiri-

ko auzunean bizi den hamabost urteko Betty da liburuko protagonistetako bat. Neskato honen istorioaren bidez, Hegoaldeko hainbat herritar emakumeek bizi duten egoera azaltzen du liburuak; izan ere, ageri diren datuen arabera, zenbait kulturatan, lehen hilekoa izanez gero, ezkontzarako prest daude neskak. Afrikako emakume batek egunean zehar dituen betebeharrak ere aipatzen ditu liburu honek, grafiko baten bidez. Goizeko bostak baino lehen jaiki, laborantzara joan, egurra bildu eta etxera itzuli, artoa xehetu eta prestatu, ur bila joan, jatekoa prestatu eta jan, umeak eta arro-

pak garbitu eta gaueko bederatzi terditan oheratu.

Ali Maow Maalin gazte somaliarraren kasua ere aipagarria da: «1977ko urriaren 22an, sukarriz eta larru negalez esnatu zen, nabarria zuten. Txertaketa taldeek Merca gaztearen herrira jo zuten berehala eta han, hiru astetan, 50.000 lagun baino gehiago inmutzatu zuten. Maalin munduan nabarria pairatu zuten azkena izan zen». Hauek, 'Hegoaldearen bila' liburuaren zenbait adibide baino ez dira. Protagonista hauen istorioak bezalako beste hamaika kontatzen ditu Medicus Mundik kaleratu berri duen liburua.

gazkigileek hartu dute parte proiektu honetan. Hauen lanaz gain, Medicus Mundi elkarteak bere artxiboa eta bere kideek Hegoaldeko herrialdeetan egin dituzten argazkiak erabili ditu liburua osatu ahal izateko. Marrazkiak, bestalde, Cesar Oroz marrazkigilearenak dira eta euskarazko edizioaren itzulpena, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusika itzulpen atalak egin du.

'Hegoaldearen bila' liburua eskuratzeko modurik egokiena, oraingoz, Medicus Mundiren egoitzara bertara jotzea da, Burlatan.

Hala ere, liburudendetan salgai jartzea ere aztertzen ari dira. Prezioa 2.500 pezetakoa (100 libera inguru) da.

«Kulturarako gogoia piztu nahi dugu»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Azken hilabete honetan Nafar Ateneoaren gaur egungo egoera eta geroa aztertzeko mahainguruak antolatu ditu elkarteak, bazkideek egungo martxan duten partehartze eskasak kezkatuta, antza. Vicente Madoz presidentearen ideia izanik, duela bederatzirte elkarrekin sortu zuten hasierako helburuak berreskuratzeko asmoz egin dela dio.

EGUNKARIA.— Nola sortu zen Nafar Ateneoaren egoerari buruz gogoia egiteko ideia?

zuten elkarrekin. Ikusten nuen, halaber, presidentzialismoren arriskua, hau da, lehendakariaren izena Ateneoaren martxarekin gehiegi lotzea, eta ezinbesteko airuditzen zitzaidan —lehendakaria edozein delarik ere—, bere martxa izatea.

EGUNKARIA.— Aipatzen duzun bazkideen partehartze eskasak hasieratik gertatu den zerbait da, edo pixkanaka nagusitu den joera?


MADOZ.— Ateneoaren egitura, beste edozein elkarrekin egitura bezala, goitik-behera-

berriro: tolerantzian eta askatasunean oinarrituriko elkarrekin osatu behar zela, arlo guztietako ideia eta helburuei irerakia, eta begirune handikoa ikuspuntu guztiekiko. Hau da, inongo ideia —ez politikoa, ez erlijiosoa ez filosofikoa— ez zedila nagusitu, eta ez zedila elitista izan, bakarrik gutxiengo batzuentzat. Hau zen, hain zuzen ere, Ateneoa osatu zutenen ideia nagusia. Nafarroan badira oso aukeratuak diren elkarteak, eta Ateneoaren papeira, nolabait esateko, hauen azpian dago: ez da ezeren adi-

iruditzen zitzaigun ideia, eta kuota ordaintzen genuen, inolako etekinik atera gabe. Baina gero adiskidetasun sentimendu bat garatu da elkarteetako kideen artean, eta soberazko kritika baztertu da. Gogoia kulturaren jendea da, informazioa trukatzeko duena, eta aisialdia aprobetxatzeko gogoia duena.

EGUNKARIA.— Nafarroako gizartearen ondo ordaintzeko dago Nafar Ateneoan?

MADOZ.— Baietz uste dut. Ez dira biltzen gure ingurura gizartearen lehen mailako pertsonaiak, eta akaso zenbait adinari dagokionez, falta dira ordezkariak. Guk egin ditugun azterketen arabera, erakundearen bazkidearen soslaia 40-50 urte bitarteko lagun ba-



Vicente Madoz, Argibideko bere bulegoan.

JOXE LACALLE

VICENTE MADOZ.— Ideia nigan sortu zen. Betidanik arduratu nau horrelako elkartearen batzorde nagusia eratzen denean gertatzen denak: alegia, batzorde horrek kontrolatzen duela elkarrekin, nahiz eta bederatzirte bazkide inguru izan. Horregatik, beti ahalegindu naiz jendearekin hitz egiten, jakiteko zein den bazkideen nahia, zer asmoa duten eta. Nahi nuen batzorde bazkideen nahia islada izatea, eta horregatik sortu zitzaidan iragana, oraina eta geroari buruzko mahainguruak egiteko ideia. Gainera, jakin nahi nuen Ateneoa duela bederatzirte bat urte berriro sortu zutenen asmoa zein zen, zertarako sortu

koa da, oso sailkatuta, eta guk hasieratik izan dugu oso garbi hori aldatu egin behar zela. Hau da, jendearen partaidetza askoz handiagoa lortu behar genuela, ez bakarrik batzorde nagusian baina biltzar orokorrean ere, ahaztuz norberak askotan dituen traba defentsiboak. Eta hau guztia ikusi genuen ez sumatzen genuelako, arriskua ikusten genuelako baizik.

EGUNKARIA.— Zer ondorioak izan ditu eztabaidak?

MADOZ.— Uste dut konfirmatu egin direla inoiz zirriboratu baina sekula zehaztu ez ziren gauzak. Adibidez, Ateneoa sortu zenean oso garrantzitsua zirudien ideia bati heldu zaio

tua izan behar, baina arlo guztietan heldu behar zaie.

EGUNKARIA.— Elitismoaren irudierekin, baina, ezin izan duzue hautsi.

MADOZ.— Hain zaila baita 'ateneo' izenak berak ematen duen irudierekin haustea! Baina gure ekitaldietara azaltzen den jendea ez da batere elitista, arlo guztietan aurkitzen den jendea baizik. Gehienak kaleko jendea da, norbere arloan ongi mugitzen baina aparteko maila ez daukan jendea.

EGUNKARIA.— Zerk batzen du Ateneoaren jendea?

MADOZ.— Hasieratik gaudenok oso ideia lausoa genuela iruditzen zait. Bultzatu nahi genuen Nafarroarentzat ona

tena da, maila sozial ertainekoa, eta lanbide profesional ertainekoa. Gazteak ez dira aski bazkideen artean, baina gero eta gehiago hurbiltzen dira gure ekitaldietara. Unibertsitateetatik ere franko heldu zaizkigu azken bolada honetan.

EGUNKARIA.— Zer eman behar dio Ateneoak gaur egungo gizarteari?

MADOZ.— Gizakiaren gogoia jorrazteko jakinmina, batez ere. Aisialdia zenbait arlo jorrazteko erabili behar direla iruditzen zaigu, eta hori da zabaldu nahi dugun ideia. Gainera, kultura zerbait atsegingarri izan daitekeela frogatu nahi dugu, jendearengan horretarako gogoia piztea. Hori da gure azken asmoa.

Vicente Madoz

NAFAR ATENEOREN
PRESIDENTEA



SOSLAIA

Herriaren ordezkaria

Argibide Osasun Mentaleko zuzendaria, Bartolome de Carranza elkartearen partaidea, gizarte arloan ezinbesteko erreferentzia, eta Nafar Ateneoko presidentea. «Herriaren ordezkaria naiz bertan», dio. «Izendatu nindutenean, ondo pentsatu nuen. Nik uste dut nafar arruntaren ordezkaria naizela: ez gara inozoak, baina ezta eskisitoak edo adituak ere. Gainera, esperientzia badut talde handiak koordinatzeko orduan, eta horregatik onartu nuen». Denbora —duen denbora apur hori— kendu baldin badio ere, aspaldian ahaztutako zenbait afiziori heltzeko parada eskaini dio Ateneoak, eta beste mundu batera ateratzea bezala izan dela dio.

NOSKI JATOR

© Zaldi EROA

